

1990-IV-20

Zarauzko Sanzenea Kultura Etxean, 1990eko apirilaren 20an, egin dute euskaltzain osoek hileroko batzarrea. Goizeko hamarrek eta erdietan bildu dira: J. Haritschelhar burua, J.M. Lekuona buruordea, J.M. Satrustegi idazkaria, J.A. Arana Martija diruzaina, P. Altuna, P. Charriton, J.L. Davant, A. Irigoyen, E. Knörr, F. Krutwig, E. Larre, F. Ondarra, Tx. Peillen, P. Salaburu, J. San Martin, eta L. Villasante, euskaltzainak. J.L. Lizundia, idazkariordea. R. Badiola eta J.J. Zearreta, argitarapenen eta ekonomi eragile, urgazleak, dagozkien gaietan.

X. Diharce eta J. Hiriart-Urruty euskaltzainek ezin etorria adierazi dute.

Martxoko batzar-agiria onartu da.

Argitarapenak

J.A. Arana Martija, diruzainak, Argitarapen batzordearen azpiegitura hobetzeko asmoa aurkeztu du. Alde batetik, Euskaltzaindiak argitaratzen dituen lanak bere langileen bidez ordenagailuetan makinaturik inprimategira bidaliz, asko murriztu litekeela kostua, esan du. Ordenagailuen baliapena areagotzeko, bulego-langile talde batek ikastaroa egin berria du Bilbon, eta bigarren taldeak egingo du gero.

Beste alde batetik, Argitarapen batzordeko eragileak laguntzailereren bat beharrezkoa omen du bulegoan. Horretarako, Euskaltzaindiak orain arte izan dituen hamabost langileen kopurutik lanpostu bat hutsik dagoela, aditzera eman du.

Oraikoz eskatzen dena, aipaturiko bi gaiei bidea irekitzen zaiela onartzea besterik ez da, diruzainak proposamen zehatzak beste batean aurkez ditzan gomendatuz.

Asmoa begi onez ikusten da eta bi proposamenak azter ditzala diruzaintzak batzarreari bere egunean aurkezteko, erabaki da.

Batzordeen egitasmoak

Hizkuntza Politikarako idazkari nagusia den M. Karmen Garmendiaren gutun bat jaso da Eusko Jaurlaritzatik batzorde bakoitzaren osakera, lan prozedura eta

eginkizunen berri eskatzen. Era berean, lan programa bakoitzaren barnean 1990. urterako egitasmoak eta kronograma eskuratu nahi dituela, aditzera ematen du.

Zergatik ez den Hitzarmenaren eskakizuna bete, galdetu du euskaltzainburuak.

Bi arazo desberdinen kontua da. Ekonomiari dagokionez, diruzaintzak urteko bere balantzea garaiz bidali zuen. Betekizun teknikoa da atzeratu dena, egitasmo, lanen epea eta abar, alegia. Sei hilabete hauetakoa ez da egin, batzorde bakoitzak bere txostena egin behar baitu lehenik, eta Hitzarmenaren prozedura berria denez, epe bat eskatzen du bidea urratzen joateko. Uztailerako gaurkotua izango da atzerakada hori, eta handik aurrera sistematikoki epe barruan bete daiteke eskakizuna.

Diruzainaren esanetan, Hitzarmenak berak dio aurrekontuen herena urtarri-lean ordainduko zaiola Euskaltzaindiari, eta apirilean egon arren ez dute herri-ginteeek sosik igorri, ezin direlarik soldatak ere ordaindu.

Hala ere, Euskaltzaindia bere epeak betetzen ahaleginduko dela, dio euskaltzainburuak.

E.H.-ren autodeterminazioaz

J.A. Arana Martija, A. Irigoyen, F. Krutwig eta Tx. Peillen euskaltzainek martxoko batzarrean aurkeztutako gutun baten bidez, autodeterminazioaren aldeko adierazpen bat plazaratzea eskatzen diote Euskaltzaindiari.

Eztabaida luzea izan da gaiak sortu duena. Besteak beste, Arautegia aurrean dela gai hau ez da Euskaltzaindiari dagozkionetakoa, esan da batzuren aldetik. Hala ere, autodeterminazioa bide bat dela euskararen hedapenerako, diote beste batzuk. Autodeterminazioa eta euskara bi gauza direla eta ez daudela, nahi eta ez, elkarrekin loturik, ihardetsi zaio.

Norberaren iritzienganako begiramendurik haundienarekin, gaia bera Euskaltzaindiaren arauetan sartzen den hala ez bozkatzearabaki da.

Batzartutako hamasei euskaltzainez bestalde, X. Diharce eta J. Hiriart-Urrutyk euskaltzainburuari eman diote izkribuz euren ahala. Hemezortzi txartel beraz erabakitzeko. Hauetatik, 12 ez, eta 6 bai. Gehiengoaren ustez, beraz, autodeterminazioaz mintzatzea ez da Euskaltzaindiaren egitekoa. Hala ere, adierazpen bat banatu da jokabide honen zergatia arrazoituz.

Egutegiaren zehaztapenak

Datorren urriko batzarrea K. Otaegiren omenez Hondarribian egitea erabaki da. Euskaltzaleen Biltzarrak badu bere aldetik horrelako zerbait egiteko asmorik, eta Luberriaga elkarteburuarekin mintzatzea komeni da. Txostenei dagokienez, omenduaren bio-bibliografiaz J. San Martin mintzatuko da. Euskal Jaien eta poemagintzaren azterketa Patri Urkizuri eskatuko zaio, edo bestela J.A. Letamendiari.

Larramendiren omenez Andoingo Udalak prestaturiko egitarau orokorraren barnean Euskaltzaindiak egingo dituen Lexikologi eta Gramatika Jardunaldien berri eman da. 15ean goiz-arratsaldez Gramatika Jardunaldiak egingo dira. 21ean Euskaltzaindiaren hileroko batzarrea eta Lexikologi Jardunaldien hasiera, 22an eguerdirako amaitzeko asmoz. Atal desberdinak antolatuko dituen batzorde bat izendatu da, Udalarekin batera Eusko Jaurlaritzaren eta Donostiako Diputazioaren barne direlarik.

Kanpo izendapena

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Saitetik hartutako gutun baten bidez, euskarazko literatur lanak sortarazteko bekak eta saio nahiz antzerki lanak argitaratzeko laguntzak banatuko dituen epaimahairako ordezkaria izendatzea eskatzen da. E. Knörren izena emango zaie.

Eskuartekoak

J.I. Ruiz Olabuenaga jaunak bidalitako izkribu bat irakurri da *Euskararen Hizkuntz Mapa* argitaratzeko Euskaltzaindiak nolabaiteko babes, dirulaguntza edo onarpenen bat eman lezakeen galdetzen. Ez dagokiola esan du batzarreak.

Jagon sailburua den E. Knörr, J. Haritschelhar eta J.L. Lizundia Belgikan izan dira apirilaren 11n, *Taalunie*, Holanda eta Flandesen arteko nederlanderaren hizkuntz erakundearen berri jakiteko.

E. Mugica Espainiako Justizia ministroarekin izandako hartu-emanen berri eman da. Euskal deituren grafia legez aldatzeak ez duela inolako arazorik sortzen, esan du besteak beste. Eskatzea aski omen da.

Nafarroako urgazle den Mariano Izetari omenaldia egingo diotela Elizondan datorren igandean, aditzera eman du J.M. Satrustegi lurralde hartako ordezkariak. Berak joaterik ez duenez, zorion-txartela bidali dio eta P. Charritton joango da Euskaltzaindiaren izenean.

1989ko *Oroit-Idazkia* banatu da azkenik batzartuen artean, eta besterik gabe amaitu da batzarrea.

AUTODETERMINAZIOAZ ADIERAZPENA

1. Euskaldun guztien ondarea da euskara, zeinahi diren haien usteak eta sinesteak, haien jaioterria, bizilekua eta gainerako ingurumenak.

2. Euskaltzaindiak 1918. urtean sortzetik beretik ikerlanak burutzeaz gainera beste xede hau du: euskararen sustatzea eta jagotea. Horrexegatik mintzatu izan da Erakunde hau argi eta garbi zenbait alditan euskara gure ustez oker tratatu

izan denean; hala nola, Espainiako Konstituzioan (1978), 3.1 artikuluan, eta Nafarroako Foru Hobekuntza Legean (1983), 9. artikuluan.

3. Euskaltzaindiak uste du, Erakunde Akademikoa den aldetik ez dagokiola bere iritzirik ematea Euskal Legebiltzarrak berriki Autodeterminazioaz hartu duen erabakiaz.

4. Euskaltzaindiak adierazten du eta aldarrikatzen beti eta nonahi defendatzen dituela eta defendatuko euskara ahalik gehiena hedatzeko eta garatzeko, bai eta Euskalerriko eremu osoan zuzen onez zor zaion "status" eta egoera hobereena erdiesteko, baliabiderik egokienak.

Zarautzen, 1990, apirilak 20

DECLARACION SOBRE LA AUTODETERMINAZION

1. La lengua vasca es patrimonio de todos los vascos, cualesquiera fueren sus credos o ideologías, sus lugares de nacimiento o residencia u otras circunstancias.

2. La Academia tiene desde su fundación en 1918, además del fin de la investigación, el de su promoción y fomento. Por ello mismo, esta Institución ha hablado claramente en varias ocasiones, principalmente sobre el tratamiento, injusto según nuestro criterio, de la lengua vasca en la Constitución Española (1978), artículo 3.1, y en la Ley de Amejoramiento del Fuero de Navarra (1983), artículo 9.

3. Euskaltzaindia es de la opinión de que, como tal Institución Académica, no le corresponde emitir juicio alguno sobre la reciente resolución del Parlamento de la Comunidad Autónoma Vasca sobre la Autodeterminación.

4. La Academia declara que defiende y defenderá siempre las mejores condiciones para la completa extensión y desarrollo de la lengua vasca y para que ésta alcance en todo el ámbito del País Vasco el "status" que en justicia le corresponde.

Zarautz, 20 de abril de 1990

BATZARRE IREKIA

Zarautz hiriko Udaletxean 1990.eko apirilaren 21ean, eguerdiko ordubetan, bildu da Euskaltzaindia Gregorio Arrueren heriotzearen mendeurrena ospatzu bere batzar irekia egiteko asmoz. Bildu dira: J. Haritschelhar euskaltzainburua, J.M. Satrustegi idazkaria, J.A. Arana Martija diruzaina, P. Altuna, A. Irigoyen, F. Krutwig, F. Ondarra, Tx. Peillen, J. San Martin eta L. Villasante, euskaltzainak; I. Eizmendi "Basarri" euskaltzain ohorezkoa; X. Aranburu, M. Atxaga, M. Azkarate, R. Badiola, J.M. Larrarte, A. Lertxundi, J.L. Lizundia, L.M. Mujika, A. Sagarna eta J.J. Zearreta, urgazleak. Mahaipuruan eseri dira Zuzendaritzakoe-kin batera: Antonio Alberdi, herriko alkatea; Imanol Murua, Gipuzkoako Diputa-

tu Nagusia; M.^a Karmen Garmendia, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako Idazkari Nagusia; Josu Legarreta, Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Zuzendaria; Agustin Ezponda, Hernaniko alkatea; Martin Etxeberria, HABEko Zuzendari Nagusi eta zinegotzia; Roman Zulaika, zinegotzia. Maite Etxaniz eta Karmelo Iturria hizlariak ere aurkitzen dira.

1. Antonio Alberdi herriko alkateak Euskaltzaindiari ongi etorria ematen dio, bigarren aldiz bere bilkurak Zarautzen egiten dituela adieraziz.

2. Jarraian, J. Haritschelhar euskaltzainburuak bere sarrera hitzak egiten ditu, azpimarratuz Akademia, alkateak ongi esan bezala, bigarren aldikotz etorri dela Zarautzera. Bietan hileroko euskaltzainen bilkura eta Lexikologi Jardunaldiak eginez, aurreragokoan hiriaren 750. urtebetetzea zela eta Zarautzek frantziskotarren bidez euskararekiko izan zuen eragina goraiatuz, oraingoan Gregorio Arrue euskal idazlearen mendeurrena ospatuz. Bestalde, Udalaren baimenaz Sanzanean, Euskal Herriko Hizkuntz Atlasean lanean diharduten lankide bientzat kokalekua ere utzi dio Udalak Euskaltzaindiari. Guzti honegatik bada, esker ona agertu du.

3. “Gregorio Arrueren biografia” izenaz txosten zehatz eta mamitsu bat egiten du A. Karmelo Iturriak. Hernaniko parrokiako jaiotza agiritik hasi eta gaurko egunean, orain 100 urte hil zenekorarte, xehetasun ugari ematen ditu, hala nola Arantzazun fraidegai egondakoak, herriko eskola maisu eta udal idazkari-zakoak, itzultzaile eta idazle lanetakoak, familia gora-beherak, eta abar. Guzti hau dokumentazio oparoz hornitua.

4. “Gregorio Arrueren Santa Jenobebaz beste zer bait” izeneko txostena irakurtzen du Maite Etxaniz Zarautzeko Euskararen Udal Zerbitzu arduradunak. *Santa Jenobebaren Bizitza* liburuaren sintaxia ikertu du, hau da, liburukian azaltzen diren perpaus bakun eta koordinatuak aztertu ditu, subordinaziokoak alde batera utzirik. Bestalde, joskerari buruzko zenbait berezitasun ere aipatu ditu gaur egungo bizkaieraren ildotik ekinik. Jarraian koordinatuetakoa kopulatibo, adbersatibo, disjuntibo eta azkenik *bada* juntagailuaz ere eskaini ditu berezitasun batzu.

5. “Gregorio Arrue, Mazoren lehen itzultzaile” izeneko txostena irakurtzen du azkenik J.A. Arana Martija euskaltzain jaunak. Ordurarte Astete eta Ripaldarenak itzultzen zirela aipatu du, Bonapartek aginduriko itzulpenak ere bi josl lagun horienak izan zirelarik. Valladolideko Kalonjea izan zen Mazo jaunarena hartu zuen Arruek eredutzat, Astete eta Ripaldaren testuak bateratzen zituela. Arrueren garaian erabiltzen ziren euskal dotrinen aipamena ere egin du hizlariak.

Eta besterik gabe amaitu da batzarrea.